

# ZARAUZKO BALEARENAK

ROKE ETXABE



Sig.: P ETX zar  
Tít.: Zarauzko balearenak  
Aut.: Etxabe, Roke  
Cód.: 1018497



**ROKE ETXABE**

**...1878...**

Urte horretan, Otsailak 11, balea somatu zuten Zarauzko uretan. Zarauztarrek, getariarrek eta oriotarrek elkar hartu zuten piztiari erasotzeko. Ez ziren denak arrantzaleak. Roke Etxabe ehulea zen. Hipolito Aramendi erremintaria zen. Sasoian sasoiko lanean jarduten zutenak, haiek.

Hil zuten balea ordutako borroka baten ondoren. Baina haserretu egin ziren getariarrekin. Auzitara ere joko zuten. Roke Etxabe zarauztarak bertsoak paratu zituen, balearen pasadizioa adieraziz. Ez omen zen plazatako bertsolaria, ezta bertso jartzailea ere. Haatik, Etxabek, beste bertsolari apal eta anonimo askok ez bezala, iraun egin du herriaren memorian, eta bere bertsoak ezagunak egin ziren agudo eta zabalki. Gaur egun ere abesten dira bertsook Zarautzen.